

# ADINEKO PERTSONAK EUROPAN (1)



El presente artículo resume el extenso informe elaborado por el CLEIRPPA (Centre de Liaison, d'Etude, d'Information et de Recherche sur les Problèmes des Personnes Agées) a petición de la Comisión de las Comunidades Europeas y que bajo el título "Para una mayor autonomía de la persona de edad: realizaciones innovadoras y nuevas orientaciones para el futuro", recoge los datos más destacados existentes hasta el año 1982 sobre el tema en algunos países miembros de la CEE. Esta primera entrega contempla algunos datos sobre la situación de las personas de edad en la CEE (demografía, alojamiento, servicios sociales) y en el apartado de las innovaciones reseña las correspondientes a actividades, ayudas a domicilio, educación-formación, información y alojamiento. Una segunda entrega resumirá las realizaciones referentes a los temas de ocio-vacaciones, participación, cuidados-salud, sistemas de alarma y transportes. Por último, se ofrecerá un breve resumen de las tendencias políticas actuales y futuras en favor de las personas de edad en diez de los países que integran la CEE.

# AUTONOMÍA ADINEKOEN BATERATO BURURAPEN ETA ORIENTABIDE BERRITZAILEAK ETORKIZUNARI BEGIRA

Europako Elkartean Batzordeak ikerketa bat eskatu zion CLEIRPPA (*Centre de Liaison, d'Etude, d'Information et de Recherche sur les Problèmes des Personnes Agées*) antolamenduri, bâtez ere zenbait herrialdetan, hala nola: Danimarka, Frantzia, Italia, Herrialde Behereak Alemaniaren Errepublikaren Fedérala eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan adinekoen mesedetan eman diren urrats berriak biltzeko erregutuz, baita herrialde horietan politika-sailean alor honetan ageri diren joera berriei buruzko txosten bat ontzeko ere aginduz.

Txostenaren egileek sarreratik beretik adizera ematen dutenez, zailtasun eta muga bat baino gehiago izan ditu lan honek. Adinekoen autonomia kontzeptuak edo bururapen berritzailea zer den erabakitzeak zailtasun nabarmenak ezartzen zituen eta azkenik hizkuntzak ezazik estatistika-datuaren egoera desberdinak era eragozpen bat baino sortu die ikertzaileei beren ondorioak ateratzeko orduan. Guztiarekin ere, ZERBITZUAN aldizkariaren irakurleentzat interesgarria izango delakoan gaude txosten zabal honetan datozen datuen berri ematea, berriki EEEn sartu garelarik, ezinbesteko bait zaigu elkartekide ditugun herrialdeek nota ikusten duten adinekoei buruzko politika eta laguntza-jarduna, *mutatis mutandis*, beraietan burutu dirten esperientzietatik egokientzat jotzen ditugunak etxera ditzagun edota bide beretsuetatik ibiliz ekintza antzekoak edo osagarriak asma ditzagun.

Txostenak hiru sail nagusi ditu:

- a) Estatutu kideetan adineko pertsonen egoera.
- b) Aipaturiko sei herrialdeetan eman diren urrats berritzaileak.
- c) Etorkizunari buruzko orientabide berriak, 1982ko uztailean, Viennan, Zahartzeari buruzko Mundu-Biltzarrean aurkeztutako txostenen ildotik, eta Gobernu bakoitzak agertu duen borondatearen berri émanez.

Lehen artikulua honetan CLEIRPPA bururapenaren lehen bi atalen laburpen bat eskainiko dugu eta bigarren artikulua batean emango dugu joera politikoei buruzko hirugarren atalaren berri.

## Adineko pertsonen egoera EEEn

Populazioaren zahartzeari dagokionean, 65 urtetik gorako pertsonen %10 baino gehiagoko kopurua eraten duten Elkartearen kide diren Estatuak, hirurogeigarren hamarkadaren hasieratik aurrerakoan, Alemania delarik aurrena %16 rekin. Jakina denez, jaiotze-tasa apalen edo denatalizazioaren ondorioz ari da gertatzen zahartze hau eta ez hainbeste bizitzaren iraunerazpenean aurrera egin delako; hau gerta dadi-nean beste zahartze-aldi berri bat gertatu-ko da.

Oro har, esan behar da, populazio orokorra baino askoz bizkorrago ugalduta delà adinekoena, Otik 14ra bitartekoek batzbeste duten garrantzi txikia ikusirik: 1975 urteaz geroztik populazioaren sektore honek ez du osatzen Estatu kideen populazioaren laurdena ere Aide hau nabarmena gertatzen da munduko populaziorik gazteenekin konparaketa eginez gero. Kanyak, esaterako, % 50 zuten 15tik beherakoez osatua eta %4 bakarrik zituen 65 urtetik gorakoaren artean. Antzeko kopuruak agertzen dira Honduras, Nikaragua, Jordania, Syria, Algeria, Zambia eta abar bezalako herrialdeen populazioak aztertean.

Adinekoen garrantzia nola igotzen ari den ikustean populazio orokorren baitan, adinaren arabera igotzen den hilkortasunak murrizketa bat dakar 65 urtetatik gorakoaren artean, baina guztiarekin ere adinean aurreratuek gero eta eremu zabalagoa hartzen dute populazio osoari dagokionean. Honela, aipaturiko bost Estatu kideetan (Belgika, Danimarka, Frantzia, Errepublikaren Federalean eta Erresuma Batuan), 75 urtetatik gorakoek % 5 gaindituxea dute eta Irlanda da maila

honetan ordezkariak apalena duena % 3,8. Datuen arabera, badirudi populazioaren zahartzea, adin handikoen artean, urteko + %0,1eko erritmoan ari dela gertatzen bateko beste.

Nahiz eta 4° adin hau adin aldakiz bakarrik definitzen ez den, 75 urtetatik gorako populazioa arrisku handiko bezala gertatukoartzen da eta planteiatzen dituzten arazo larriak konpontzera edo konponbidean jartzera beehintzak, zuzendu beharko dituzte bereziki Estatuak beren ahaleginak 1975eko datuekin konparatuta, 1980an % etik gorako hazkundera izan dute adin-kategoria honetakoek ia herrialde guztietan, mutur batean Alemania eta Italia daudelarik % 20rekin eta beste muturrean Irlanda % 3rekin.

Adineko populazio honen beste ezaugarrietako bat emakumezkoen ugartasuna da. Jakinaenez Oitk 4ra bitarteko adin -taldean emakumeen ordezkariak % 49koa izan ohi da. 40-50 urte bitartean gizonezkoen hilkortasun-tasa zertxobait handiagoa da emakumezkoenen aldean. Baina adin honetatik aurrera desoreka nabarmenki hazten da: Hamarren Europan 65-69 urte bitarteko % 57 dira emakumeak, 75-79 bitartean % 63 eta 84 urtetatik gora % 72. Aipaturiko desoreka hau Erresuma Batuan eta Frantzia nabarmentzen da inon baino gehiago eta Grezia, Herrialde Behereak eta Irlanda bezalako herrialdeetan ageri da alderik txikiena. Bistan dago emakumezkoen proportzio handi honek areagotu egiten dituela zahartzeak berekin dituen zailtasunak, ekonomia eta gizarte-bizitzari dagokionean senarraren menpean egon direnen kasuan.

Ezkontzari dagokionean eta gizonezkoen hilkortasun-tasa handiagoa izatearen ondorioz, Alemanian, Frantzian, Italian eta abarrean, gizonezkoen artean ezkonduak % 70 diren bitartean emakumeak % 33 bakarrik aurkitzen dira egoera honetan 65 urtetatik gorakoen artean. Irlanda aparteko kasu bat da: gizonezkoen artean ezkonduak % 55 dira eta emakumezkoen artean % 28. Eta dina gora doa neurrian, desoreka hau hazi egiten da emakumearen kaltetan. Dibortzioari dagokionez oso kopuru txikiak ageri dira belaunaldi hauetan eta % 4 inguruan dabilza zifrak bi sexuarentzat.

Bizi-txaropena, kontutan izan diren zazpi herrialdeetan, gizonezkoentzat 70 urteetan eta emakumezkoentzat 77 urteetan ezarri behar da. Mende honen hasieratik egundoko aurrera-pausoa eman da zentzu honetan, zeren eta 1900 urtean 53 urteetan bait zegoen gizonezkoentzat eta 56 urtee-

tan emakumezkoentzat. Kontutan izan behar da oraindik ere munduko zenbait herrialdeetan aipaturiko zifra hauen inguruan dabilzala, adibidez, Egipto, Algeria, Guatemala, Bolivia, Malawi eta abar bezalakoetan.

Dena den, esan behar da bilakaera hau haurren hilkortasun-tasa jaitzi delako ematen delà, medizina eta higieak egin dituen aurrerapenei esker, eta ez bizitza luzatzea lortu delako.

Aurrikispenei dagokionean, Hamarren Europako populazio orokorrak 1980ko mailan iraungo du eta 270 milioi gizabanako ditu. Bi herrialde haziko dira bereziki: Frantzia (+ % 9) eta Herrialde Behereak (+ % 8); Alemanian, aldiz, populazioak behera egingo du % 7an. Beste herrialdeetan bere horretan irautilera joko du populazioak. Populazioaren zahartzeari dagokionez 2.000 urtean gaur eguneko zifra berdintsuak izango direla espero da.

### **Etxebizitza**

Ez dago esan beharrik nolako garrantzia duen adineko pertsonarentzat etxebizitza. Lanetik erretiroa hartzean ordu luzeak etnaten ditu bertan, eta gainera kontutan hartzen bada gero eta ahulezia fisiko handiagoa sentitzen duela, piskanaka hormaz kanpoko bizimodua murriztu eta hormaz barrukoa nagusitzen hasten da. Unibertsoaren mugatze honek bereziki azpimarratzen du etxebizitzaren garrantzia. Beraz, puntu honetan etxebizitzari duten ala ez eta nolako baldintzatan dituzten galdetu beharko da alderdi hau aztertzerakoan. Frantzia, Italia, Errepublikak Fedèrala eta Erresuma Batua kontutan ditugularik (populazioaren % 85) etxebizitza hornitu baten jabe zenbat diren galdetu dugu, hornitua izateaz ur beroa, barne-komuna, garbitegia (dutxa edo bainua) eta berokuntza zentrala izatea ulertzen delarik.

Frantzia eta Erresuma Batuko egoerarekin alderatuta, alemaniarrek pribilegiatu gisa agertzen dira zeren etxe denek bait dute komuna, % 89k ur beroa, % 84k bainua eta erdiak lau osagaiak dituen etxe batean bizi bait dira. Frantzian etxeen erdiak bakarrik du bainua, eta hirutik bi baino gutxiago dira ur beroa edo barneko komuna. Erresuma Batuko datuak ere ez dira gehiegi urruntzen Frantziakoetatik. Bestalde, eraikuntza hauek aski ezerosoak gertatzen dira, zeren jabeak eta etxeak batera zahartuak bait dira. Alemanian % 53 gerra-ondoan eraikitako etxeetan bizi da, zeren hiri handien ia % 80 suntsiturik geratu bait zen; Frantzian, aldiz.

ondasun higiezinak oso zaharrak dira. Honez gainera etxebizitzaren tamaina ere desagokoa gertatzen da bakarrik bizi diren pertsonen kasuan: % 70 kasutan etxebizitza azpipopulaturik dagoela ikusten da. Okupazioari dagokionean aide handiak ikusten dira herrialdeen artean, % 34tik (Alemania) hasi eta eta % 70era (Grezia) doan gama bat ageri da.

Bizikidetzaren (cohabitation) datuari dagokionez europar gizartean fenomeno honek garrantzi txikia du. Herrialde guztietako datuak ez badago ere Frantzia % 14,5 eta Alemaniako Errepublika Federalean % 13 da tasa hau. Europar adinekoen ia kopuru osoa etxebizitza banakakotan bizi da, hau da, talde-albergeko egituratik kanpo. Dagoen imajina negatiboaz aparte eta ustearen aurka esan behar da oso pertsona gutxi bizi delà ospitaleak ez diren talde-albergetan eta portzentaia ez delà iristen % 5era, tasarik apalena Greziakoa (% 1 ) eta altuena Herrialde Beheretakoak (%14,5) delarik,.

### **Gizarte-zerbitzuak**

Europar Elkarteko kideen politikak ahalik eta denbora luzeenean adinekoak beren etxeetan edukitzera zuzendurik daudelkusia dugu etxebizitzaren kalitateak zenbaterainoko garrantzia duen. Helburu nagusi honen bigarren ahalegin bezala, laguntza-egitura edo sistema bat antolatzea da. Etxera eskaintzen diren zerbitzu hauen artean otordua, liburua, ile-apainketa, pedikura, gorputz-higienea, gurpilaulkizko paseoak, korrespondentzia, konponketa eta abar bezalako sail desberdinak sartzen dira. Aide izugarriak daude herrialde batetik bestera eta hirigunetik baserrigunera zerbitzu hauen eskaintzari dagokionean. Eskasirik handiena Grezian, Irlandan eta Italian aurkitzen dira eremu honetan.

Bestalde abegizko zentruak ere osagai derrigorrezkoak dira etxerako zerbitzu hauekin batera. Hasiera batean zainketa-joera nabarmena bazuten, azken aldiotan ¿este alderdi batzuren jabe ere bihurtu dira: hezkuntza eta aisiazko alderdiana batipat. Beraz, kultur eta arte-ekintzez (hitzaldiak, kontzertuak, teatroa, kantua...) gainera gizarte-jokoak (kirola, gimnasia-arrantza, skia, bizikletazko paseoak...), biblioteka eta irakurgelak, jaialdiak, dantzaldiak, eskulanak eta abar luze baterako zentruak daude sail honetan. Gizarte industrialduetan gero eta balio handiagoa ikusi zaio adinekoen aberaste kultural eta intelektuari eta him motatako egiturak ageri dira baliagarri sail honetan: Adinarteko Unibertsitateak, Hirugarren adi-

neko Unibertsitateak eta Usadiozko Unibertsitateak Lehenak Europaren iparraldean diraugarrienak. Bigarrenak Frantzian aurkitzen dira hedatuena eta hirugarrenei dagokionez, gaztetan beraietan ibilitakoak bakarrik joaten direla gero ere ikusten da.

Azkenik, medikuntz alderdia da etxean adinekoak edukitzeko garatu beharreko beste puntu bat: eguneko ospitaieak, eguneko osasun-zentruak eta etxe-ospitalizazioa dira beharrezko sail honetan. Oraindik egitura hauek oso gutxi hedatu dira Estatu kide desberdinetan.

### **Bururapen berritzaileak**

Hasieran esanenez, adineko pertsonen autonomia eta gizarte faboratzen duten bururapen esanguratsuak biltzeko orduan honako sei Estatu kide hauek bakarrik hartuko dira kontutan, hots, Alemania Fedérala, Danimarka, Frantzia, Italia, Herrialde Beherak eta Erresuma Batuetakoak.

Txostengileek fitxa-eran aurkeztea erabaki dutelarik, guk ere ildo beretik joko dugu eta honako kode hauek erabiliko ditugu informazio desberdinen berri ematean:

E = erakundea H =  
helburuak M =  
modalitateak F =  
finantzaketa

Bildu diren esperientziak sei herrialdeetakoak direlarik, izendapenaren ondoan ezarriko diren honako siglen arabera laburtuko dira estatu-izenak: Alemania Fedérala (D), Italia (I), Danimarka (DK), Herrialde Beherak (NL), Frantzia (F), Erresuma Batua (UK).

Ondoren eskainiko ditugun xehetasunak honako sail desberdinei buruzkoak izango dira: ekintzak, etxerako laguntza, hezkuntza-formazioa, informazioa, etxebizitza, aisiaoporrak, partaidetza, zainketa-osasuna, alarma-sistemak eta garraioa.

### **EKINTZA**

**(ongintzazkoak, sozialak eta paraprofesionalak)**

### **BORONDATE ONAREN LAGUNAK (D)**

E\* Dirua irabazteko helbururik ez duen eta osasunean dauden jubilaturiko gizonez osaturiko elkarte batda. Westfaliako Hagenen du egoitza.

H\* Bakoitzak bere astia edo denbora librean inoren mesedetan eskaintzea, aldi berean bere ezaguerak eta esperientzia baliaraziz.

M\* Karitatezko erakunde guztien zerbitzutan jartzen dira "lagunok" iheltsari, elektrikari, zurgin eta abar bezalako lanak egiteko eta astean bost egunez eta egunean 7 bat orduz lan egiten dute. Eliza, erretoretxe, kiroldegi, drogatuentzako etxeak eta abar bezalako lanak burutzen dituzte.

F\* Lana eskaintzen dien erakundeak ordaindu behar izaten ditu garraioa, ostatu eta mantenua eta obrak eskatzen dituen materialak.

### **ELKARLAGUNTZAZKO ELKARTEA (D)**

E\* Hasieran Russelheimeko pastore batek sortua, gaur egun elkarte ez-konfesionala da eta iraznahirik gabea. "Kontakt" deritzo eta Hesseneko Landaren eta hiriaren laguntzarekin aritzen da.

H\* Eragozpenak dituen edozein pertsonaren zerbitzutan jartzea, beste pertsona batzu eta gauza bera egitera bultzatuz, adinekoek eta ezinduek isolamendua eta bakar-tadearen aurka borroka egin dezaten.

M\* Elkarateak 24 orduz funtzionatzen du, larunbat, igande eta jaiegunak ere barne direla. Egunerdi ordainduriko sekretari batek lan egiten du eta berau arduratzen da soldadutzaren ordez zerbitzu zibila egiten ari diren gazteen eta borondatezko pertsonen antolaketaz. Azken hauen artean era eta adin desberdinetako pertsonak aritzen dira.

Helburu nagusia 6 telefono-katea koordinatzea izaten da, bakoitza 4-6 kidez osatua egoten delarik. Telefono-deia egunero ordu berean egiten dira eta ordenu berean kateako kideen artean. Etefen bada edo premiaren abt sortzen bada kate arduradunak norbait bidaltzen dute helbidera. Elkarateak baditu ibilgailuak sorospen-lanetarako.

F\* Elkarateari egiten zaizkion kotizazioak. Oparizko laguntzak. Zerbitzu zibila egiten ari diren gazteak gobernuak eskuratzen ditu.

### **ADOPZIOZKO AMONAK (DK)**

E\* EGV = Adineko Pertsonen laguntzeko irabaznahirik gabeko Elkartea.

H\* Belaunaldien arteko integrazioa. Emakumeak "berea" izan duen ekintza baten bitartez norbere "nia" birbaloratzea.

M\* Adineko emakumeak "eguneko amona" bezala ari izatea, haurtzaindegietan eta erakundeetan bizi diren haurren artean.

F\* EGV.

### **S.O.S. AITON-AMONAK HAUR-HERRI BATEAN (D)**

E\* Frankoniako Wurzburgen dagoen "Erich Kastner" Haur-herrian aurkitzen da interés publikoko elkarte hau.

H\* Gurasorik gabeko haurren (umezurtz edo zapuztuen) eta adinekoen artean harremanak sortzeraztea.

M\* Haur hauen "hutsunea" betetzeko deiak egiten dira eta ondoren ezartzen diren lotura afektiboak esker harreman iraunkorrak sortzen dira bisitak eginez, elkarrekin jolastuz, historiak kontatuz eta abarrez.

### **ADINEKO PERTSONAK ESKOLETAN (NL)**

E\* Udalerrietan.

H\* Adinekoari bere gizarte-rola bihurtu eta baliagarri egin. Bakartadeak eta asper-turik egoteak dakarren hondamendia eragotz. Ikasturteei bizitasuna eman.

M\* Zenbait eskolatan gonbidatu egiten dituzte adinekoak gai jakin batzuri buruz hitzegitera etor daitezen (historia eta azken mundu-gerrateaz bereziki).

### **ADINEKO PERTSONAK HIRI-BIZITZAN PARTAIDE (I)**

E\* Erromako 3 auzategian sortua ongintzazko erakunde eta udalerriko administrazioaren arteko akordioz.

H\* Adinekoari bere balioaren zentzua bihurtzea, ekintza "sozialak" burutzeko eta giza harremanak izateko aukera eskainiz.

M\* 1980 urtearen amaieratik hasita administrazioak lan-aukera batzu sortu ditu gutxienez 55 urtetik gora dituzten eta hilean 400.000 lira (40.000 pta) baino gehiago irabazten ez dutenentzat, hórrela talde-bizitzan partaide izan daitezten. Ekintzen



artean hauek daude: eskoletatiko sarrerak zaindu, liburutegiak zaindu, kultur ekintza desberdinetan parte hartu... Parte hartzea borondatezkoa da presentziatzko obligaziorik gabe.

#### **EGEE = ENPLEGU ETA ENPRESARAKO BELAUNALDIEN AKORDIA (F)**

E\* 1979an Association des Ages delakoak sortu eta bideraturiko programa.

H\* Tamaina ertain eta txikiko enpresei edota oraindik sorbidean daudenei, jubilatua edo aurrejubilatua diren eta gaitasun-maila onaren jabe direnak baliaraziz. Enpresak sortzen edo mantentzen lagundu, enpresari gazteei "kinka larriak" gainditzen lagunduz.

M\* EGEEren kontseilari-sareak 1.200 borondatezko ditu eta % 80 jubilatua edo aurrejubilatua dira. Doan aritzen dira arauketa juridiko eta fiskala, banku-praktika, patente-gordailu, finantzaketa, pertsonalbilketa eta abar bezalako gaietan. Jardunak bitarikoak zuten dira: puntualak eta iraupen luzekoak. 16 erregio-antentatan banaturik daude, ordezkari baten ardurapean.

F\* 1982 arte Ministraritza desberdinetatik dirulaguntzari esker iraun du, harrez gero enpresa-sorketarako Agentzia nazionalak finkatu du programa.

#### **EKINTZA PARAPROFESIONALAK; ADINEKO PERTSONA ASISTENTEAK (I)**

E\* Milango hirian, Reggio Emiliako udalerrian, Tristeko hirian.

H\* Adineko pertsonei rola aktibo bat ematea beren egoera morala hobetzeko. Beraien esperientzia eta gaitasunari etekina atera. Zenbait sektoretan pertsonal-gabezia bete.

M\* Adineko pertsonei lagundu (laguntza psikologiko eta materiala, etxean eta atsedeen-etxetan).

Museoetako aretoen zainketa batez ere eskolarien bisitaldietan.

Eskola-ingurumarien zainketa.

55 urtetatik 70 artekoiei egiten zaizkie proposamenak, ahal dela auzategian bizi direnei. Medikuziurtagiria eskatzen da. Lanorduak mugatu samarrak izaten dira aurrez erabakita zenbatekoa bat kobratzen dute. Aseguru-poliza batek estaltzen ditu eratzukizun zibileko arriskuak.

#### **ETXERAKO LAGUNTZAK**

##### **"DENETARAKO" GIZONAK ADINEKOEN ZERBITZUTAN (D)**

E\* Samaritar Langileen Elkarte (Saxonia Behereko Bielefelden).

H\* Etxea zaintzeko zerbitzuak eskaini dagoen eskasia betetzeko. Zerbitzu zibila egiten ari diren erreklutak erabiltzen dira adinekoen zerbitzutan.

M\* 9 erreklutat osaturiko talde batek burutzen dituzte adinekoen etxe-lanak, bizilekua garbitzetik hasi, arropak, ontziak, sukaldaria... garbitzeraino. Aurretik prestakuntza hartzen dute. Auto bat egokiturik izaten dute lanerako behar duten guztiarekin. Prezioa: orduko 20 markotakoa izaten da.

F\* Eskatzailea eta Gizarte-Laguntzako edo antzeko erakundeetako mesede-hartzaileei dagokionean, udalerriko gizarte-fondoa.

### **EXTERAKO LAGUNTZEN HEDAPENA LARUNBAT, IGANDE, JAIEGUMI ETA GAUETAN (DK)**

E\* Udalerria.

H\* Adineko, gaiso, ezindu eta bakarrik bizi direnen segurtasuna eta segurtapena gehitzea. Ospitalizazioa denboran mugatzea.

M\* Dirulaguntza, laguntasun "moral" eta gauezko zainketa ematean zertzen da zerbitzua.

Astean sei ordu, laguntza guztiak orokorki, doanekoak dira, adineko pertsonak zer-nolako ahalbide ekonomikoak dituen tutan hartu gabe. Asteazpi ordutik aurrera zerbitzua ordaindu egin behar izaten da oinarritzko pentsioa baino baliabide gehiago baditu adinekoak. Orduaren prezioa 45 daniar koroatakoa uzaten da, Copenhagen 45 koroatakoa izaten delarik.

F\* Udalerraren gain. Zenbait baldintzatan erabiltzaileak ere parte hartzen du finantzaketan.

### **PRESAZKO MEDIKU-ZERBITZUA (GAUEZ ETA ASTEBURUZ) GAISSO DAUDEIM PERTSONA ISOLATUEIMTZAT (D)**

H\* Gauetan eta asteburuetan presazko mediku-laguntza duten gaiso isolatuei laguntza eskaintzea.

M\* 1975az geroztik, Wiesbaden, borondatezko-talde bat arduratzen da (irratizistematikoz loturaz baliatuz) presazko zerbitzuaz, bakarrik beren sendagaiak hartzeko gauza ez diren gaisoei laguntza emateaz.

### **ETXEANGO MANTENU ESPERIMENTALA (F)**

E\* Grenobleko auzategi bateko zenbait organismo eta elkarte sozio-mediku. Bertako populazioaren zahartze-tasa nabarmena da (% 17).

H\* Auzategiko egitura sozio-medikuak erreportatzea bertako antolamendu geriatrikoari osagarritzko laguntza bat eskainiz.

Langile sozialei eta familiei lana kentzea ospitalizazioak laburtuz.

Osasun-etxeren batean egon ondoren, gaisoari etxera moldatzen laguntzea.

M\* Erizain, zainketa eta sekretaria bâtez osaturik egoten da ekipoa. Zerbitzuak normalean goizetan egiten dira, adineko pertsonen etxeetan.

Kide iraunkorrez eta aldian-aldikoz osaturiko batzorde mediku-tekniko bat hiltzen da hamabostean behin adineko pertsona bakoitzarentzat proiektu terapeutiko bat ezartzeko eta beraz aldatuz joango da gaisoaren egoeraren arabera.

### **ASISTENTZIA PERTSONALIZATUA (I)**

E\* "Cultura Popolare" elkarte S. Egidio parrokiarekiko loturan.

H\* Adineko pertsonari bere ohizko ingurunean bizi ahal izateko laguntza eskaini.

Kanpoarekiko harremanak erraztu: etxean lagunduz (medikuarengana joaten, tratamendua jarraitzen lagunduz) eta adineko pertsonak komunitate txikitik bilduz (biltzeko tokietan, oportetako lekuetan). Elkarteko kideak adinekoekin bizi izaten dira.

M\* 30-35 pertsonak lan egiten dute talde txiki batean Erromako periferian dauden 10 auzategitan eta 500 bat adineko arduratzen dira.

### **ISOLAMENDUAREN AURKAKO EKINTZA (D)**

E\* Aschaffenburgeko udalerria (Frankonia).

H\* Erakundeek aparte bakarrik eta isolaturik bizi diren adineko pertsonak detektatzea. Berauen beharrezko zehaztea eta Laguntzea.

M\* "Isolamenduaren aurkako Ekintza" honek hiru aldi ditu:

1) Prentzaren bitartez adinekoen aide lan egin nahi duten pertsonak biltzea, eta hiria 13 sailetan banatu ondoren bakoitzean arduradun bat (adinekoen bisitaria) izendatzea.

2) Isolaturiko kasu guztien eta berauen premien zerrendatzea. Adinekoen mesfi-

dantzak uxatzeko prentsan argitaratu ekin-  
tzaren zertarakoa, arduradun bakoitzaren  
argazkia. Gauza bera egiten da orri batzuen  
bitartez erakunde eta abegi-etxee guztietan  
ere. Ondoren bisitak egiteari ekin zitzaion,  
eta "egoera arriskutsuan" zeuden 313 per-  
sona detektatu ziren.

3) Ondoren laguntza-sistema bat anto-  
latu zen: bisita erregularrak isolatuei, etxe-  
lanak egitea, paseatzen edo medikuarenga-  
na joaten laguntzea. Laguntza materiala  
baino areago izaten da morala. Dauden  
laguntza-egiturekin lankidetzan estuan aritzen  
dira arduradunak. Adinekoa erakunderen  
bâtera eraman behar denean, arduradunak  
prestatzen du aldaketa. Programa hau gero  
eta gehiagora doa eta auzategiko ardura-  
dun bat baino gehiago behar dira.

F\* Antolatzailea.

### **HEZKUNTZA-FORMAZIOA**

**(Kultura Orokorra-kreatibitatea-3° Adine-  
ko Unibertsitateak-Jubilazioa eta Zahar-  
tzeak berekin dituen arazoekiko sentsi-  
bilizazioa-Formatzaileen formazioa)**

### **3° ADINEKO UNIBERTSITATEEN ETXE FRANTSESAREN SORRERA (F)**

E\* 1980az geroztik talde honetan 60 bat  
adinekoen unibertsitate daude.

H\* UFUTAk 35.000 bat "ikasle" ditu 30  
bat unibertsitatetan barreiatuak. Lehenda-  
biziko Bilerak Nazionalak antolatu ditu infor-  
mazioa trukatzeko Unibertsitate hauek Fran-  
tzian izan behar duten egitekoaz.

M\* UFUTAk bileretarako aukeratu duen  
gaia hau da: "Hirugarren Adinekoen Uni-  
bertsitateak eta Hezkuntza Iraunkorra".

### **ADINARTEKO GOI-ESKOLAK EDO UNIBERTSITATEAK (DN)**

E\* Alderdi politiko desberdinek antola-  
turiko hiru erakunde handi: FOF, AOF eta  
LOF.

H\* Hasieran nekazarientzat bakarrik zena,  
gerora langileetara hedatu zen. Zenbait urtez  
geroago jubilatuek erakartzeko lana egin da,  
ikaste-prozesu oro gizarte-bizitzan irauteko  
modu bezala ikusten delarik.

M\* Ikaskizun bereziak diseinatu dira adi-  
nekoentzat (hizkuntza, historia, literatura,  
eskulanak, gimnasia...) eta irakaskuntzak kon-

tutan hartzen ditu 3° adinekoen berezitasu-  
nak (asimilazio-eritmoaren moteltasuna).

Partaideen gutxienezko kopurua: 12.

Irakasleen ordainketa: 100 koroa orduko.

Ikasturtearen iraupena: urriaren 1 etik api-  
rilaren 30 arte.

F\* Partaideek (200-300koroa bitartean)  
eta antolatzaileek.

### **HERRIALDE BATEN AURKIKUNDERAKO PRESTAKUNTZA ETA ONDORENGO BID AI A (DK)**

E\* Adinarteko unibertsitatea, "Eskola I toli-  
taria" saila.

H\* Kultur formazioa eta kultur bidaiak.  
Interesgune baten bitartez talde batean inte-  
grazioa, bidaiaren aurreko prestakuntzaren  
eta ondorengo orientabideen bitartez.

M\* Lehen etapa: Formazio-aldi bat Dani-  
markako zentru batean, bisitatuko den  
herrialdeko geografia, historia eta kultura  
sakonduz.

Bigarren etapa: Bisita. Orain arte SESB,  
Groenlandia, Alemaniaren iparraldea, Nor-  
vegia dira bisitaturiko herrialdeak.

F\* Partaideak ordaintzen du parterik han-  
diena baina EGVeK laguntzak ematen ditu.

### **ADINEKO PERTSONEK ANIMATURIKO "UNIBERTSITATE PARALELOAK" (UK)**

H\* Jubilatuen ikasteko gogoari erantzun  
eta isolamendua gainditzea.

M\* Elkarrean bilduriko jubilatuek beren  
ikasturteak antolatzen dituzte Cardiff, Sowiby  
eta Hope Valleyen. TAP elkarteak frantses  
eta espainiarazko elkarriketa-ikasturteak pro-  
posatzen dizkie bere kideei, baita zurean  
eta beiran grabazioa ere.

F\* TAP (Third Age Project) elkarrean-  
tzat "Nuffield Fundazioak" eta "European  
Social Fund"ek ematen dituzte laguntzak.

Oharra: Alemanian Klappholtal/Sylteko  
Adinarteko Unibertsitatean bizpahiru aste-  
tako ikastaldiak antolatzen dira adinekoen-  
tzat pintura, marrazkia, argazkia, zeramika,  
eskulanak eta bara bezalako gaietan, par-  
taideek berek finantziaturik.



Danimarkan "Daghojskole"n goiz eta arratsalderoko klaseak antolatzen dira 55 urtetik gorakoentzat, urritik apirilera bitartean. Bertan irakasten diren gai nagusienak hauek dira: psikologia, pintura eta arte plastikoak, musika, kantua, historia, literatura, sukaldaritza, dantza folklorikoak, dantza modernoak, gimnasia. Irakasle profesional eta ordaindua da, nahiz eta partaideek hilean 20,5 koroa bakarrik ordaintzen duten. Parez-pare kontzertuak, bidaiak, museotarako bisitak, erakusketak eta abar ere antolatzen dira.

Alemanian Meemsteden udalerriak sukaldaritza-ikastaldiak antolatzen eta finantzatzen ditu 50 urtetik gorako gizonezkoentzat.

### **BARNETEGIKO IRAKASKUNTZ SAIOAK (DK)**

E\* EGV.

H\* Adinekoen ezaugarriak kontutan izanik, beraien interes intelektualak lantzea.

M\* 60 urtetatik gorako guztientzat irekita dauden bi Goi-Eskola sortu dira jubilatuentzat. Saioak 12 egunetakoak izaten dira eta garraioa, pentsio eta guzti 750 koroa inguru kostatzen dira. Egunean zehar gimnasia, kantuak, eztabaidak, otorduak eta txangoak tartekatzen dira norbere ekintzetarako eta telebista ikusteko astiarekin. Gehienbat ikasten diren gaiak historia, literatura, hizkuntzak eta egungotasuna izaten dira.

F\* Partaideen eta batzutan udalerrien kontura.

### **DESFABORATUENEI IREKITA UNIBERTSITATEA (F)**

E\* CRI taldea (Caisse Retraite Interprofessionnelle) eta Paris VIIko Unibertsitatea.

H\* Gizarte-maila desfaboratuenetako adinekoei ikastaldietan parte hartzeko aukera eskaintzea, beraien artean lotura afektiboak sortuz eta indartuz.

M\* CRI arduratzen da bere kideei berri emateaz eta 3<sup>o</sup> adineko Unibertsitate baten arabera aritzen da: kontaktoa hartzeko bilera bat, taldetxoak eratzen dira irakasleen inguruan eta egunerdikoko foroak eratzen dira.

F\* CRI faldearen kontura.

### **JUBILAZIORAKO PRESTAKUNTZAZKO PROGRAMAK (DK-D)**

\*EGV-Enpresa pribatu bat.

H\* Etorkizuneko jubilatuei zahartzeari buruzko prestakuntza bat eskaini, errealitatea desdramatizatuz eta berak dituen "egiazko" eta "gezurrezko" alderdien berri emanez. Zahartzearen irudia balorizatu.

M\* Danimarkan astean bi aldiz eta ordu parte batez egiten dira eta bakoitzari 1.400 koroa kostatzen zaio edo bikoteari 400na. Ukitzen diren gaiak hauek dira: zahartzearen egia eta gezurra, rola eta erlazio-sareak, psikismoaren bilakaera, bikote-bizitza eta denboraren berregituratzea.

Alemanian, beren denbora librean egituratzeko inizatibak eta aukerak ematen saiatzen dira zenbait enpresatan, lan artistikoen erakusketak antolatuz. Enpresak aldizkari bat banatzen du doan aktibo eta jubilatuen artean, bere jubilazio aldirako ideiak eta eginkizunak proposatuz.

F\* Enpresen eta antolatzaileen kontura.

Oharra: Aipaturiko ekintzez gainera Alemanian badira Erakundetan Bizitzeko Prestakuntza eskaintzen duten ikastaldiak eta bertan jubilatuek eta beraien seme-alabek ere parte hartzen dute; Pedagogia Ikastaldiak, aiton-amonei beren hezitzaile-rolak betetzen laguntzeko eta Ospitalizazio-ondorako prestakuntza ematen duen Caritasen zerbitzu bat ere.

Danimarkan, Eguneroko Bizitzara Moldatzeko ikastaldiak ematen dira eta adin guztietara irekita daude, beraietan josten, sukalketan, etxeko tresnez baliatzen eta abar irakasten da.

### **INFORMAZIOA**

#### **AGINTARI LOKALAK LEGEZ BEHARTURIK DAUDE ADINEKOAK INFORMATZERA (DK)**

E\* Gobernu-agintaritza.

H\* Eskubideen eta laguntzen berri gehien behar izaten dutenak informazioaren faltaz aukera eta ahalbiderik gabe ez geratzea.

M\* Adinekoen interesekoak diren gai guztiei buruz informazioa eskaintzen duten liburuak eta orriak argitaratuz. Udaletxetan

antenas edo egunezko etxeak ezarriz informazioa zabaltzeko. Eta erakunderen batean sartzean ahoz eta idatziz eman, bertaraztean zer eratako eskubide eta betebeharrak dituen adieraziz.

Oharra: Oso prezio merketan banatzen diren aldizkariak ere badira, EGV-ek kudeatuak, eta adinekoen intereseko gaiak lantzen dituzte: abegi-etxeak, zahartzeari buruzko testuak, janaria eta osasunari buruzko kontseiluak, adinekoen elkarteak etaba. Itxura onekoak dira, alaiak eta zahartzaroren irudi positibo bat ematen saiatzen dira.

## "INFO-BUSA" (D)

E\* Bonneko hiria.

H\* Adinekoei informazioa eta laguntza eskaini, eraikuntza administratiboetara joateak sortzen dituen eragozpenak baztertuz.

M\* Gizarte-asistente batek autokar bat gidatzen du hiriko auzategietara joanez eta zerbitzu eta eskubideen berri eman eta formularioak betetzen laguntzen die, dagozkien laguntzak jaso ditzaten. Etxetik ia ateratzen ez diren pertsonekin harremanetan jartzeko aukera izan da.

Oharra: Antzeko zerbait egiten da Hannoveren ezinduei autobus batean beren eragozpenak gainditzeko tresna eta aparatuek eramanaz.

Frantzia ere bada "Service Mobile d'Information" deritzana, adinekoei informazioa eramanez Paris korritzen duena eta herri-agintaritzak finantzatzen du. Egun eta ordu jakinetan iristen da kamioneta hau aurrez izendaturiko gunetara.

Herralde Beherean "Solidaritatezko Katea" deritzan bat dago adinekoei zailtasun ekonomikoak gainditzeko kontseiluak eta informazioa eskaintzen diena.

## ETXEBIZITZA

Danimarkan adineko pertsonen premiei moldaturiko etxagintza bati ekin zaio, Gurutze Gorria, EGV, etxagile pribatuak erakunde pribatu, publiko eta erdi-publikoak partaide izan direlarik proiektuan. Etxe zaharrituen ordeztuak eraiki diren berri hauek gehienena 60 m<sup>2</sup>, ekipamendu sanitarioa osoa, sukaldea, igongailua eta galtzara-sarea, telefonoa eta alarma-sistema dituzte. 67 urtez

gorakoentzat dira. 1982an kostua 400.000 koroatakoa zen eta gobernuaren ustez aski idealak ziren banakako bizilagunarentzat. 1982az geroztik gobernuak bere gain hartu ditu interesak eta udalak diru-laguntzak ematen ditu. Hileko alokairua 2.300 ingurukoa izaten da. Gobernua eta udalaren ahalbideak mugatuak dira.

Bada beste plan bat ohizko etxebizitzak adinekoen premia eta eskaizunetara egokitzeke ere. Fondo publikoekin egiten dira obrak, baina adinekoak etxearen jabe denean oinordekotzaren bidez egiten da amortizazioa. Antzeko planak daude Herralde Beherean.

Beste era askotako inizatibak ere aipagarri dira herrialde hauetan: Frantzia auzategietan ostatu-egitura txikiak eginez jubilatuek biltzeko saioak egin dira eta Pobrean Anaia Txikiak nabarmendu dira lan honetan. Nekazarien arazo bereziei soluziobideak ematen ere saiatu dira Danimarkan. Ingalaterran arrakasta handikoak gertatu dira "granny-flats" derizatenaak, ebadetuen premietara ongi egokitzeaz gainera oso erraz eraikitzen direlako. Alemaniako Frankfurt/Mainen ere egin dira esperientziak adinekoak eraikuntza handi eta erdi-hutsetatik atera eta etxebizitza txiki eta egokietara aldatzeko. Primak ematen zaizkie honelako plana onartzen duena adinekoari.

Herralde guztietan ageri dira inizatiba ugari adinekoak erakundeetara eramatea atzerarazten duten ekintza eta zerbitzuekin: Goldstone Old People's Home, Cowley Road Hospital, Abbeyfield Society, Home Close... Azken sistema hau 1968an sortu zen eta ostatu kolektibo bat da 40 bat pertsonarentzat eta bakarkako eta taldekako bizitzaren abantailak uztartzen saiatzen da eta talde-bizitzari apatia dioten pertsonak integrazteko oso eraginkorra gertatu da.

Italian, ACAPEk kolektibitate txiki erdi-autonomoak sortu ditu adinekoen andeakuntza fisiko eta mentalari aurre egiteko. Apartamendu batean adineko talde bat jartzeko da ACAPEko arduradun baten zaindaritzapean. Laestra A. Signan, Florentziako auzategi industrial batean, 60 urtetatik gorako 86 pertsona bizi direneko bizitegi bat dago. Hemen ere banakako eta binakako zerbitzuak taldekakoekin konbinaturik daude. Adin eta ekonomi ahuleziak baldintzak betetzen dituenak sar daitezke eta eskualdeko eta udalerriko agentariak arduratzen dira finantzaketaz.

**Xabier Mendiguren**